

PRENTSA-OHARRA: 2021.09.21

## Gala Knörr egonaldi artistikoa ari da gauzaten Wroclaw hirian Etxepare Euskal Institutuaren babesaz

- Interneteko iruditegia baliatuz, ikuslea arazo garaikideen inguruan hausnartzera gonbidatu nahi du artistak bere obrarekin
- Egonaldian zehar publikazio bat osatuko du: “Sentimendu kolektiboez hitz egiten duten irudi biralak erabili eta sortu nahi ditut”

Gala Knörr izan da aurtengo artista hautatua AIR Wro programan parte hartu eta Wroclaw-en (Polonia) hilabeteko egonaldi artistikoa egiteko. Urriaren 9ra bitarte izango da bertan, ikuslea arazo garaikideen inguruan hausnartzera gonbidatu nahi duen proiektuan lanean. Interneteko iruditegia ekarri du erdigunera artista gasteiztarrak. 2020ko udazkenean argitara ematekoa zen proiektua da, urtebeteko atzerapenarekin datorrena COVID-19a dela eta.

“Komunikazioan galtzen gareneko sentsazioa dut inspirazio iturri; hemen maiz sentitzen dut muga linguistikoa, eta normalean gainditzen badut ere, asko interesatzen zitzaidan gai hori lantzea umoretik”, azaldu du Knörr-ek. Horrela, egonaldian zehar publikazio bat osatuko, ardatz izango duena ‘Lost in translation’ filma, besteak beste. “Ezagutzen ditugun irudiak erabili nahi ditut, ‘meme’ gisa funtzionatuko duten piezak sortu eta itzulpenekin azaldu euren esanahiak.

Sentimendu kolektiboez hitz egiten duten irudi biralak erabili eta sortu, komunikazioan galtzeko esperientziari begi atseginez so eginda”.

Artists In Residence Wroclaw programak gai ezberdin bat jorratzen du urtero, eta sortzaileei Poloniako hirian egonaldiak egiteko aukera eskaintzen die Europako herrialde ezberdinetako artista edota ikerlariari. Aurtengoan, irudi biralak izango dira. Ikusleak, obraren bidez, bere buruaren isla ikusi ahal izatea bilatuko du artistak, konexio bat sortzea. Ikuslearen irudimena ere piztea.

Gala Knörr diziplina anitzeko artista bisuala da, pinturan, bideoan eta instalazioan lan egiten duena. Bere lanak identitatearekin, teknologiarekin, komunikabideekin, satirarekin eta herri kulturarekin lotutako gaiak aztertzen ditu.

Arte Ederrak ikasi ditu Central Saint Martins-en (Erresuma Batua) eta Parisko Parsons-en. Txomin Badiolaren Madrid45eko tailerrean osatu zuen bere prestakuntza, eta Richard Linklater-en Masterclass-en Centre Pompidou-n (Frantzia). Knörr Saatchi galerian hezkuntza laguntzailea izan zen 2014an eta Londresko Goldsmiths Unibertsitateko artista-ikertzaile bisitaria izan zen 2018tik 2019ra, besteak beste, Espainian, AEBetan eta Belgikan egindako lanak aurkezten.

### **AIR Wro programa**

Polonia eta Euskal Herriaren arteko elkarlana 2014. urtean hasi zen, Donostia eta Wroclaw 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko prestaketak medio. Ordutik 13 euskal artistak egin dute egonaldia Wroclawn AIR Wro programaren bidez. Culture Zone Wroclaw erakundeak kudeatzen du programa gaur egun, eta Etxepare Euskal Institutuak Donostia 2016ren legatu bezala eman die jarraipena egonaldi hauei.

Horrela, euskal artistei euren prestakuntzarako eta euren lanaren zabalkunderako plataforma eskaintzen die Institutuak eta mugikortasuna, kultura arteko elkarrizketa eta nazioarteko elkarlana sustatzen ditu.

AIR Wro programaren xedea da kultura eta artearen alor ezberdinetan jarduten duten sortzaile europarren lana lagundu eta sustatzea; betiere, euren lana hiri-

identitatea eta kultura kontzeptuen inguruan burutzen badute. Izan ere, egonaldi artistiko hauen azken helburua hiri modernoaren arazoek konponbiderako praktika egokiak aurkitzea eta bitartekaritza sustatzea baita.

2019an, Eneka Fernandez eta Raisa Alava artistak garatu zituzten euren lanak egonaldi artistikoan. Bi artistek Poloniako Wroclaw hirian auto-edizioarekin lotutako proiektu bana gauzatu zuten, Fernandezek sei asteko egonaldia, eta Alavak study visit bat. 2018an, aldiz, Amaia Vicente eta Mario Paniego izan ziren hautatuak, hiri-espazioaren inguruko hausnarketa eginez soinuaren eta geolokalizazioaren bidez, batak, eta hiriko espazio publikoetan egiten den publizitatearen erabileran sakonduz, besteak.

#### Info+

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)